Hace unos meses, las mujeres de H&M fueron a la huelga para evitar los despidos de sus compañeras. De igual manera lo hicieron en Ferrovial-Araia; plantilla compuesta por innumerables naciones, que expresaron alto y claro que no van a aceptar continuar siendo mulas de carga. Más de cien trabajadoras de Altan-Bernedo, empresa situada en Montaña alavesa, se encuentran al escribir estas líneas en huelga indefinida exigiendo unas condiciones laborales dignas. Sin olvidar las luchas a lo largo y ancho de Euskal Herria en contra de la brecha salarial de género como la huelga en la limpieza del Guggenheim. Mujeres, migrantes, periferias... que han comprendido que la huelga es el mejor instrumento de empoderamiento colectivo para romper la exclusión que ejerce el capitalismo patriarcal sobre ellas.

¿Qué ocurre si me sumo a la huelga?

Los casos citados son un exponente de cómo la huelga no solo es una herramienta para alcanzar objetivos laborales sino que también es un instrumento para que los colectivos fortalezcan su posición en la sociedad. Sin embargo, ¿qué ocurre para que una plantilla o un sector de trabajadoras y trabajadores den el paso y se sumen a la huelga? En muchas ocasiones, y me incluyo, nos hemos centrado más en analizar el contenido de la huelga (tabla reivindicativa) y su cierre final (logros), que lo que tiene que ver con el inicio de toda la dinámica de la contienda política.

Una plantilla decide parar su empresa o sector porque entiende que se encuentra ante una ventana de oportunidad política. Y la huelga es un claro exponente de esa oportunidad que teorizaron los autores Doug McAdam, Charles Tilly y, sobre todo, Sidney Tarrow dentro de su teoría del proceso político. Teoría de análisis de los movimientos sociales y políticos que pone el foco en cómo condicionan el conflicto las

ERREDAKZIO TALDEA

Zuzendaria: Iván Giménez.
Koordinatzailea: Gorka Quevedo.
Lan taldea: Nerea Ispizua, Davide Cabaleiro, Nagore Uriarte, Haimar Kortabarria, Lander Zabaleta, Aiala Elorrieta, Miren Rubio
Argitarazle: ELA, Euskal Sindikatua. Barrainkua 13, Bilbao. 944 03 77 00
Lege gordailua: BI-195-1998
www.ela.eus · landeia@ela.eus

dinámicas, procesos y mecanismos activados en ellos.

Hablamos de una doble oportunidad política: por un lado, la ventana de oportunidad que se abre para llevar a cabo la huelga; y, por otro, las nuevas oportunidades políticas resultantes de las movilizaciones realizadas.

La huelga como refuerzo individual y colectivo

Teniendo muy presentes los elementos subyacentes en cualquier conflicto político, en un determinado momento se producen mecanismos y procesos que marcan la necesidad de confrontación y el inicio o la apertura de la ventana de oportunidad. Las personas se suman a la huelga, entre otras cuestiones, en respuesta a una situación, problemática o porque esperan sacar un rédito (aliciente).

Recuperemos los ejemplos citados anteriormente: en H&M (y en Tubacex, también) es la propuesta de la empresa de despidos la que enciende la mecha; en Altan-Bernedo, la desregularización de las condiciones laborales; en Ferrovial-Araia, la cada vez mayor precarización; y en las luchas en contra de la brecha salarial, las diferencias en las condiciones laborales dependiendo del género. Siempre ocurre un hecho que, unido a la coyuntura política, marca el inicio del conflicto.

La huelga, de esta forma, se convierte para todos esos trabajadores y trabajadoras en una oportunidad para salir de la precariedad o evitar entrar en ella. La interpretan como (única) alternativa a su situación actual de falta de derechos laborales y de injusticia. La huelga, siempre costosa y siempre necesaria, no sólo tiene valor por sí misma y por los resultados, sino que también adquiere gran relevancia el camino recorrido en ella y el empoderamiento que provoca en los y las huelguistas. No solo por el resultado logrado tras la huelga sino también por el camino recorrido en ella y el empoderamiento que resulta en las persona. Hablamos también del reforzamiento individual y colectivo de la conciencia de clase.

Y es que, al contrario del tan repetido eslogan de Thatcher donde se decía "*there is no alternative*", aquí y ahora sí que existen alternativas. Ya que si las fuerzas de izquierdas no somos capaces de proponer alternativas al estado actual de las cosas, la nueva ultraderecha ganará posiciones haciéndose dueña de la frustración de los sectores más excluidos de la sociedad. Los mismos que han generado la frustración sacan rédito de la misma. Porque la huelga como herramienta de confrontación brinda oportunidades y ofrece alternativas a los colectivos. Organización, lucha y empoderamiento individual y colectivo.

Pero este recorrido solo es posible desde la politización y polarización de las plantillas. Porque, seamos serias, todo es política en nuestras vidas, tanto en lo privado como en lo público. Muchas veces se le acusa a ELA de hacer política, como si hacer política fuera potestad sólo de unos pocos elegidos, de una élite. En un Estado Español donde en *prime time* podemos ver a un futbolista lanzando odas a un defraudador fiscal y explotador laboral como Amancio Ortega se nos dice a los sindicatos de contrapoder que no hagamos política. Que no confrontemos, que no nos rebelemos, que no hagamos huelgas. En definitiva, que seamos sumisos.

Por ello, nuestro objetivo tiene que ser politizar las vidas para combatir la precariedad. Transmitir y concienciar a las trabajadoras y a los trabajadores de cuál es la realidad y ofrecerles herramientas de lucha para hacer frente a las opresiones que les recorren. Hacer consciente a las personas de su situación y las opresiones que le recorren. Y la huelga, sin lugar a dudas, es una herramienta para ello. ■

Iparraldea: etxebizitzaren borrokan murgildua

Azaroaren 20an 8.000 lagun bildu ziren Baionan etxebizitzaren arazo larria salatzeko. Herrian bizi eta alokatzeko eskubidea aldarrikatu zuten

> Txetx Etcheverry

«*Manifestaldi erraldoia*» idatzi du *Sud-Ouest* kazetak larunbatean, azaroaren 20an, Baionan 8.000 lagun bildu dituen herrian bizitzeko eta aloitzeko eskubidearen aldeko manifestaldia aipatzean. Arrakasta kualitatiboa eta kuantitatiboa izan da: hainbat aurpegi berrik, manifestaldiak ohiko militanteen zirkuluetatik urrunago erakarri zuela erakusten zutenak, gazteen presentzia handia eta hitzorduaren gomitari presente izanez erantzun duten sentsibilitate politiko, sindikal eta elkarteen aniztasuna.

Lehen aldikotz Ipar Euskal Herrian, bai eta ere Frantses Estatuan

Ipar Euskal Herriak azken hamarkadetan higiezinen arloan tentsioak ezagutzen baditu ere, lehen aldia da etxebizitzaren gaiaren inguruan manifestazio bat deitzen dela. Manifestaldiak lortu duen arrakasta oraino adierazgarriagoa

da. Eta Frantses Estatuan ere aurreneko bat suposatzen du, azken hamarkadak ikusita behintzat. Parisen ere, etxebizitzari buruzko manifestaldi handienek ez dute inoiz 3 edo 5.000 pertsona baino gehiago bildu. Gizarte segurantza edo pentsioak ez bezala, etxebizitzak, etxeko gastuaren lehen postua ordezkatzen duelarik, ez da inoiz mobilizazio jendetsuen edo karrikako manifestazio handien gai bihurtu. Azaroaren 20ko apustuaren arrakasta are nabarmenagoa da.

Horrek manifestaldia une giltzarri bihurtzen du, alabainan, arrakasta honek ordura arte hautetsiak, teknikariak eta militanteak hunkitzen zituen galdera bat mobilizazio sozial, masibo eta herrikoiaren xede bilakatzen du. Horrek ondorio sakonak ditu eta izango ditu hemen eta hemendik kanpo ere.

Higiezinen merkatuaren esku ikusezina

Euskal kostaldeak higiezinen tentsioak bizi ditu aspalditik. Bertako klase politikoaren gehiengoa aspaldian ezaugarritu duen ikuspegi eta antizipazio ezak, ez du, gero eta erakargarriagoa den lurralde hori prestatu aurre egiten saihestu ezin diren erronkei eta arazoei. Gaur egun presioa arinduko lukeen lur-erreserbarik ez da eraiki eta etxebizitza sozialen kopurua beharrekiko zinez ttipiegia da. Bertako biztanleentzat eskasiak eta prezioen sekulako igotzeak, lan-zentroetatik gero eta urrunago diren egoitzei lotutako arazo ekologikoak eta sozialak, jendarte-tentsioak eta egoera estugarriak modu kezkagarrian garatzen ari dira. Laburbilduz, higiezinen merkatuaren esku ikusezinak... interes orokorra bermatzetik urrun, bizi edo lan egiten duten lurraldetik aberastasun guttien duten sektoreen kanporatzea dakar, gizartearen funtzionamendua nahasiz, haserrea eta errebolta sentimenduak zorroztuz. Horrek nolabaiteko kontzientzia pizten du tokiko hautetsien artean. Ipar Euskal Herri osoa hartzen duen lehen Tokiko Etxebizitza Planaren plantan ematea, berria den Euskal Elkargoak bultzatua eta 2021eko urriaren 2an onartua, eskala handian, arazo eta desafio horiei buruz egiazko eztabaida, egiteko aukera izan zen.

Larrialdi egoera da

Azaroaren 20ko manifestazioak, nolabaiteko etxebizitza-fronte zabal baten plantan emaiteko abiapundu aski azkarra izan behar zuen. Bere arrakastak eremu hauetan benetan eragina izan dezakeen koalizio unitario baten oinarriak ezartzen ditu. Zein estrategiaren inguruan?

Irabazi daitezkeen helburuak mahai gainean ezarri behar dira eta haien lortzeko presatu behar gira, elkar osatzen diren hainbat arrazoi direla medio. Lehenik eta behin, bistan denez, larrialdi egoera delako. Biztanleriaren zati oso bat, gazteak eta gutxien aberatsak diren sektoreak, beren herrialdetik urruntzen ari dira, eta maila honetan galdutako denbora ezin da berreskuratu. Urte osoan zehar alokairu-parkearen 'airbnbzazioa' eta bigarren etxebizitzen hazkundea laster gelditu behar ditugu. Alokairuaren kontrol sendoagoa lortu behar dugu lehenbailehen (Iparraldeko biztanleen %35 alokatzaile da). Premiazkoa da etxebizitza sozialen garapena bultzatzea eta maila honetan Tokiko Etxebizitza Planaren helburuak, gutxienez, guztiz bete daitezen. Etxebizitza sozialaren jabetza kontrolatu behar da merkatu espekulatiboan etxebizitza sozialak birsaltzea eragozten duten mekanismoen bidez, gaur egun zoritxarrez ez da horrelakorik. Molde iraunkorrean hutsik diren etxebizitzak birgaitzea inposatu behar dugu. Ahal den neurrian mugatu behar dugu lurzoruen artifizializazioa, etxebizitzak dentsifikatzea eta hiria hiriaren gainean eraikitzea bultzatuz, eta hutsik diren, eta bigarren etxebizitzen multzoaren zati bat, urte osorako alokairuetara edo egoitza nagusi bilakatzeko salmentara bideratuz.

> En Iparralde la situación de la vivienda es insostenible; cada vez es más difícil acceder a una vivienda digna

Lortu beharrezko arrakasta

Emaitzen lortzeko betebeharra dugu zeren, garaipenik ez bada lortzen, biztanleriak laster ulertuko du alferrikakoa dela mobilizatzea, mugitzea, eta hori baino okerrago, mobilizazioaren oinarri soziologikoa ezinbestean higatua izanen da jada ordaindu ezinean gure hiri, herri eta auzoetatik gertatzen diren jendeen ateratzeak direla medio. Aitzitik, garaipen bakoitzak hurrengo borroka anbiziotsuagoa izateko oinarriak jarriko ditu. Eta indarrak metatzeko, biztanleria lor daitezkeen helburuen eta irabazteko estrategien inguruan mobilizatzeko praktika honek, kontzientzia kolektiboa aurreratuko du merkatuaren erregulazio eta gainbegiratze logiketara, aberastasun gutien duten biztanleentzako elkartasun eta babeserako logiketara, ondasun komunen defentsa eta kudeaketa kolektiborako logiketara, planetaren mugekiko, biodibertsitatearen eta klima betebeharren errespetuaren logikara.

Datozen urteetan ahalik eta mobilizaziorik zabal eta irmoenaren presioa atxikitzea da etxebizitza eta lurraren gaian eman beharreko borrokak irabazteko erronka erabakigarrietako bat. Iparraldean 2021. urte honek, eman beharreko borrokaren errail egokiak jarri ditu, jarrai dezagun bide honetan. ■

CONSULTORIO JURÍDICO

¿Qué son los trabajos de igual valor?

Últimamente se han emitido varias sentencias muy interesantes en materia de discriminación por razón de sexo en los "trabajos de igual valor"

> Haimar Kortabarria

Hace poco tiempo abordamos en estas páginas el tema de la discriminación por razón de sexo, incidiendo en el concepto de la discriminación indirecta, que tiene su origen en disposiciones, criterios o prácticas aparentemente neutras, pero que en la práctica sitúan a personas de un sexo determinado (fundamentalmente mujeres) en desventaja particular respecto a personas del otro sexo (fundamentalmente hombres).

En esta ocasión, y sin abandonar el ámbito regulador de la prohibición de discriminar por razón de sexo, abordaremos el concepto de "trabajo de igual valor". Y es que la normativa sobre la materia viene reconociendo desde hace mucho tiempo expresamente el derecho a la igualdad retributiva no sólo para un mismo trabajo sino también para trabajos de igual valor. Ya desde el Convenio número 100 de la OIT de 1951 o la Directiva 75/117/CEE del Consejo de 1975, la igualdad retributiva por trabajos de igual valor constituye uno de los elementos esenciales del principio de igualdad real y efectiva entre mujeres y hombres. Hoy, tanto el art. 157 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea (TFUE) como el art. 28 del Estatuto de los Trabajadores reconocen el derecho a la igualdad de retribución por trabajos de igual valor. Para la aplicación y desarrollo de tal derecho se han implantado recientemente herramientas como el registro retributivo o las auditorías retributivas, que han venido acompañadas de una descripción legal más precisa del concepto "trabajo de igual valor".

Los trabajos de igual valor se configuran como aquellos en los que la naturaleza de las funciones o tareas efectivamente encomendadas, las condiciones educativas, profesionales o de formación exigidas para su ejercicio, los factores estrictamente relacionados con su desempeño y las condiciones laborales en las que dichas actividades se llevan a cabo sean equivalentes.

El concepto de igual valor se aplica, por tanto, cuando estamos ante trabajos que se llevan a cabo en condiciones diferentes, que requieren cualificaciones y capacidades diferentes, con niveles de esfuerzo y responsabilidades diferentes, prestados en lugares o empresas diferentes, o para personal empleador distinto. Se trata, en definitiva, de evitar tratos salariales desiguales en trabajos que, a pesar de ser formalmente distintos, son en la práctica equivalentes. Para ello es preciso llevar a cabo una comparación entre trabajos distintos. De acuerdo con la jurisprudencia consolidada del TJUE, para apreciar si estamos ante un mismo trabajo o un trabajo al que se puede atribuir un mismo valor, debe comprobarse si, habida cuenta de un conjunto de factores como los anteriormente mencionados, puede considerarse que ambos trabajos (categorías) se encuentran en una situación comparable.

A pesar de toda esta regulación, es patente que la existencia del derecho a la igualdad salarial ante trabajos de igual valor no es garantía suficiente frente a la brecha salarial de género, tan enraizada en el mercado de trabajo.

Sin embargo, ello no es óbice para reconocer que en los últimos tiempos se están emitiendo varias resoluciones judiciales interesantes en materia de trabajos de igual valor. Así, por ejemplo, la Sentencia del Tribunal de Justicia de la Unión Europea de 3 de junio de 2021 afirma que el artículo 157 TFUE "impone, de manera clara y precisa, una obligación de resultado y tiene carácter imperativo tanto en lo que respecta a un «mismo trabajo» como a un «trabajo de igual valor»". Además, establece que, dado el carácter vinculante del art. 157 TFUE, la prohibición de discriminación entre trabajadores y trabajadoras se impone no solamente respecto a las actuaciones de las autoridades públicas, sino que se extiende también a todos los Convenios Colectivos relativos al trabajo por cuenta ajena, así como a los contratos entre particulares.

Muy interesante resulta también el contenido de la Sentencia del TSJ de Canarias de fecha 27/07/2021. En ella se realiza una comparación de dos categorías profesionales de una misma empresa: peón (76,78% mujeres) y peón polivalente (90,90% hombres). Pues bien, el tribunal llega a la conclusión de que se trata de dos categorías profesionales que evidencian un trabajo sustancialmente de igual valor.

Para alcanzar dicha conclusión son determinantes la denominación casi idéntica de ambas categorías, el hecho de que en ambas categorías se requiere literalmente "únicamente la aportación de esfuerzo físico y atención", que ambos trabajos incluyen tareas de barrido, la identidad del lugar de trabajo, de la formación profesional , experiencia, o el nivel de responsabilidad exigidos. Además de ello, el tribunal otorga especial relevancia al hecho de que la cobertura temporal de necesidades de "peón polivalente" sea cubierta por la empresa empleando indistintamente 'peones' hombres y mujeres."

Es por ello que el tribunal aprecia la discriminación salarial por razón de sexo denunciada, derivada del establecimiento de categorías diferentes para el desempeño de trabajos de igual valor, lo que se traduce en un impacto salarial adverso que redunda mayoritariamente en las mujeres, al ser este género mayoritario en la categoría inferior y muy minoritario en la superior.

Ez dago lasterbiderik

Demokraziaren eta sindikatuen osasuna oso lotuta daude; hala erakusten dute azkenaldian argitaratu diren hainbat lan

> Aiala Elorrieta

Demokraziaren osasuna, sindikatuen osasunaren araberakoa da, orain inoiz baino gehiago. Horretan zalantzarik ez du **Jane McAlevey** estatubatuarrak. Sindikatuen antolakuntzan aritua eta aditua den honek, Ameriketako Estatu Batuetako (AEB) panoramari begira esaten dituenak oso interesgarriak dira guretzat ere, alderatzeko zailak diren errealitateak diren arren."*Sindikatuek balio ikaragarria dute, ez soilik demokrazia galera eta diru sarrera desberdintasuna gelditzeko, baizik eta amerikarrei, berriz ere, nola batu erakusteko. Sindikatu onek norabide onean jartzen gaituzte, eta irabazteko ezinbesteko diren elkartasuna eta batasuna sortzen dute*".

Bere liburuetan sindikatuak antolatzeko dauden eredu posibleez taxuz hitz egiten du eta grebei ere aparteko garrantzia ematen die. Bere ustez, eraldaketarako giltzarria baitira. "*%1 aberatsenak irabazten dutena jendartearekin partekatzera behartzeko ez dago greba serio bat baino modu boteretsuagorik eta emaitza handienak irabazten dituzten grebak dira langileen %90ak parte hartzen dutenak*". McAleveyk greba eta giharren arteko parekotasuna ikusten du: zenbat eta gehiago erabili langileek greba, orduan eta indartsuago bilakatzen dira.

Noski, emaitzak ez dira berezkoak. Batetik, langileak lan zentroetan antolatzea eskatzen du horrek eta bere ustetan, sindikatuak antolatzeko modurik eraginkorrena *organizing* eredua da. Izan ere, grebarik arrakastatsuenak langileen %90a eskatzen badu, ezinbestekoa da masa sindikatua izatea. Alegia, aurretik mobilizatzen ez zirenengana, bere burua ekintzailetzat ez zutenengana iristea.

Bizkaiko Erresidentzietako grebari buruz **Onintza Irureta**k idatzitako *Berdea da more berria* liburutik pasarte bat ekarri nahiko nuke: "*Askotariko emakumeek erabaki zuten greba egitea eta ahalduntze prozesu indibidual eta kolektibo nabarmenak bizi izan zuten. Batzuk borroka laboral eta feministetan zaildutakoak, gutxi batzuk ELAko ordezkari sindikalak eta asko, ordura arte, norberaren lan baldintzak aldarrikatzeko ahotsa altxatzeko beldurra zutenak*".

Baina ez da nahikoa lantokiak antolatzearekin, eta bigarren urrats bat ezinbestekoa da McAleveyren aburuz: lantokia eta gizartea banatzen dituen marra ezabatzea. Borrokan ari diren langileek komunitatean dituzten harreman eta sareak erabili behar dira horretarako. Horrela, antolatu gabeko langileak edota komunitateko kideak ere borroka estrategian kokatzea lortu liteke.

Sindikatuen funtzionamendua zeharo desberdina dela AEBtan eta gure lurraldean, baina sakoneko bi tesi hauek, masa sindikatua eta komunitatearekin zubiak eraiki beharra baliagarri zaizkigu guri ere.

Uko handia eta pedagogia

Azken urtean AEBtan loratu den fenomeno baten harira ere ekarpen interesgarriak egin ditu McAleveyk. Lanpostuen 'errenuntzia handiaz' edo uko egitearen fenomenoaren harira, alegia. 2021eko apiriletik hilero 4 milioi langilek enplegua utzi du bere kabuz bertan. Horietako milioi bat langilek, edota langile gutxiagok merkatu sektore estrategikoetan, lan merkatutik irteera indibidualak



egin ordez, eskari komunetan oinarritutako ekintza kolektiboak egingo balituzte, beren lan eta bizi kalitatea errotik aldatzeko emaitza askoz interesgarriagoak izango lituzkete. Adibide gisa 2021 urtean autogintza sektorean izandako greba dakar harira: John Deere enpresako langileek bost aste baino gehiago iraun zuen grebarekin hobekuntza nabarmenak eskuratu zituzten: 10.000 langile baino gehiagorentzat soldataren %10eko igoera, besteak beste. United Auto Workers sindikatuan antolatu ziren langileak, eta korporazio multinazionalaren aurrean sekulako garaipena izan da.

Gatazkak iraun zuen bitartean gobernuak jarrera *neutrala* mantendu zuen Biden-en bozeramaileak argi eta garbi esan zuen moduan. Neutral esan nahi dutenean, kapitalaren alde esaten ari dira. Ostera McAleveyk aukera galdutzat ikusten du: gobernuak gatazketan agertu beharko zukeen, piketeetan, langileentzako justizia mezua zabaltzeko. Langileen bizitzan benetan mina nork eragiten duen azaltzeko eta pedagogia ariketa zabala egiteko aukera galdu zen horrekin.

Gurean, '*Erreputazio* hitza erabili zuen Tapiak Tubacex-eko grebaz hitz egin zuenean. "*Tubacex-eko grebak kalte handia egin dio herrialde osoari*". Alde handia dago mezu honen eta balizko justizia-mezu baten artean. Ardura (gabe) politiko hauen mezuak dira herrialdeari kalte handia egiten dietenak.

Borroka materialak, lehen lerroan

Guretzat funtsezkoak diren zenbait gatazka edo greba, balioan jarri ordez, tamalez sarritan gutxietsi egiten dira. Soldata-igoerak edo alde materialean geratzen direlako. **Jule Goikoetxea**ren *Estallidos* liburuko pasarte honek greben alde material honi zentralidadea ematen dio. Borrokatzen duen langile-klasearen zati handi batek, soldata duin baten alde borrokatzen du. "*Esplotatuek esaten badute soldata duin baten alde borrokatzea orain oinarrizkoa eta premiazkoa dela, eta, gainera, emakumeek, migratzaileek, sasoikako langileek eta abarrek bizi duten eraso sistematikoaren eta etengabeko beldurraren aurka borrokatzea bezain garrantzitsua dela, hori lehen planoan jarri behar da. Borroka horiek guztiak materialak dira, eta bigarren mailakoak deitzea langileria ez ezik, klase sozial guztiak eta bizi diren esplotazioa gutxiestea da*".

> Varios trabajos publicados últimamente demuestran que la salud de la democracia y los sindicatos están muy unidos

Materialtasunetik abiatzen dira lan-gatazka gehienak, baina asko harago iristen dira. Grebak sektore estrategikoetan direnean, sektore prekarioenetan, feminizatuetan, arrazializatuenetan, garaipen batek, hobekuntza materialez gain, onura handiak dakartza, ez soilik mobilizatu den sektorearentzat, baizik eta langile-klase eta komunitate zabalarentzat. Eta pedagogia egokia eginez gero, irabaziak are garrantzitsuagoak dira. Emaitza horietara iristeko ordea, ez dago lasterbiderik: lantokietan langileak antolatu eta, komunitatean dituzten harreman eta sareak erabiliz, komunitatera zabaldu beharra dago. ■

Tapia Legea, demokraziari kolpea

Enpresa pribatuek ere udalei proiektuak inposatu ahal izango dizkiete EAEn; Jaurlaritzak gustuko dituen proiektuak inposatzeko kolpe antidemokratikoa da legea

> **Ainhara Plazaola**

Abenduan Eusko Jaurlaritzak Tapia Legea bezala ezaguna egin den araua onartu zuen. Trikimailu hau erabilita, "goi mailako interes publikoko" proiektuak udalei inposatu ahalko dizkiete. Hasiera batean proiektu publikoetara mugatu zen araua, baina orain proiektu pribatuetara ere zabaldu nahi du aukera. Inposiziorako tresna bat da, gaur egungo Lurralde Antolaketarako araudia hankaz gora jartzen duena.

EAJk eta PSEk Eusko Legebiltzarrean Ingurumen Administrazioaren Legeari egin dizkioten eta beste alderdi guztien kontrako iritziarekin onartu dituzten zuzenketei esker, Tapia Legea bezala ezagutzen duguna errealitatea da jada. Eusko Jaurlaritzak, orain arte, bere proiektu zentzugabe eta txikitzaileak udalerri batean kokatu nahi zituenean, hainbat lekutan oposizio handia jasotzen zuen. Hala nola, Azpeitian Corrugadosekin zegoena, Arabako mendietan ezarri nahi diren parke eolikoetan edo Bergaran eraiki nahi den paper hondakinen erraustegian. Egoera honen aurrean, Eusko Jaurlaritzak inposizioaren bidea aukeratu du, denon artean pentsatutako trantsizio ekologiko eta soziala bultzatu beharrean. Interes publikoa, orokorra eta soziala" benetako trantsizioa da, iraunkorra, desazkundea barne hartuko duena eta prekarietatearen aurka borroka egingo duena lanpostu duinekin.

> Gracias a la Ley Tapia las empresas privadas podrán imponer sus proyectos e intereses privados a los ayuntamientos

Lurralde Antolamenduaren Legea errotik aldatu du, eta aurrerantzean aukera izango du udalerriei proiektuak inposatzeko, baita udal araudia urratzen duten proiektuen kasuan ere. Tapia Legeari esker, udalen arau eta iritzien gainetik, zentralizazio prozesu bat jarriko du abian Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundien, Udalen eta Kontzejuen eskumenen aurka doana. Gehiengorik ez duten udalerrietan beraien intereseko azpiegiturak eta proiektuak inposatzeko tresna izango da.

Ingurumen Administrazioaren Legean eginiko zuzenketa horiekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolaketari buruzko maiatzaren 30eko 4/1990 Legea aldatu dute. Lege honen aldaketa proposatu eta eztabaidatu beharrean atzeko

atetik aldatu dute, gainontzeko alderdi politiko, eragile eta herritarrei hain garrantzitsua den Lege baten inguruan parte hartzea ukatuz.

Tapia Legea bezala izendatu den araudi honekin, Eusko Jaurlaritzak udalek baztertzen dituzten proiektuak inposatu ahal izango ditu. Hau posible izateko, "Goi Mailako Interes Publikoko Proiektuen" figura asmatu dute, EAJk eta PSEk gehiengorik ez duten udalerrietan onespenik gabeko proiektuak inposatzeko. Ez dituzte zehaztu zeintzuk izango diren goi mailako interes publikoko proiektu horiek, baina "erabilgarritasun publikoko eta ingurumen-interes sozialeko instalazio" gisa definitu dituzte. Arrazoi ezberdinengatik gizartean oposizioa eragiten duten azpiegiturak izango dira noski, inposizio bidez soilik aurrera eraman daitezkeenak. Arantza Tapia buru duela, Eusko Jaurlaritzak oposizio ororen gainetik igaro nahi du, parte-hartzerik gabeko proiektuak inposatuz, herritarren interesak defendatzen ez dituzten proiektuak gauzatzeko. Gutxi batzuen interes pribatuei soilik erantzuten dieten proiektuak izango dira: gas putzuak, erraustegiak, goi tentsioko lineak, parke eoliko eta fotovoltaiko handiak...

Estamos ante un golpe antidemocrático. El Gobierno Vasco puede imponer los proyectos que quiera sin oposición

ELAk legediaren aldaketa hau baztertzen du, erabilitako formengatik eta suposatzen duen inposiziorik. Salatzen nahi dugu legedi berri hau guztiz antidemokratikoa dela eta gutxi batzuen interesak inposatu nahi direla benetako interes publikoaren gainetik, pertsonentzat benetan onuragarriak diren interesen gainetik.

Irudian Corrugados Azpeitia; Tapia Legearen helburua gisa honetako proiektu pribatuak udalei inposatu ahal izatea da

Hainbat gizarte eragilerekin batera mobilizatu gara Tapia Legea ez dugula onartzen esateko, eta guztiz antidemokratikoa den arau hau bertan behera uztea exijitzeko. Baina arau hau bertan behera geratzeko mobilizatzen ari ginen bitartean, Tapia Legearen bigarren zatia prestatzen ari ziren, iluntasunean eta trikimailu berberak erabilita. Oraingoan Energia Trantsiziorako eta Klima Aldaketarako lege proiektuan egingo dituzte aldaketak Tapia Legea borobildu eta erabaki guztien jaun eta jabe izateko.

Interes 'orokor' ala 'pribatua'?

EAJ eta PSEk bigarren kolpe honetan enpresa pribatuen proiektuak udalei inposatu ahal izatea onartuko dute, eta ez soilik ingurumenari lotutakoak, edozein motatako proiektuak izan ahalko dira. Honela justifikatzen dituzte: "beste proiektu mota batzuk deklaratu ahal izango dira, baldin eta horien beharra, interes publikoa, orokorra eta soziala justifikatzen bada eta horiek gauzatzea premiazkoa bada". Noski, beti ere Eusko Jaurlaritzaren gustukoak badira eta berau osatzen duten alderdien interesak defendatzen badituzte.

Azaroan onartu zen Klima Aldaketa Legearen proposamena eta aldaketa hau sartuta zegoen jada. Baina Eusko Jaurlaritzak ez zuen publiko egin eta ez zuen inork publiko egiterik nahi. Eta ELAk eginiko salaketa bati erantzutean ezkutuko asmo hauek ondo gorde zituzten.

Abenduaren 22an salatu genuen Eusko Jaurlaritzak Zumarragan hondakin plastikoen pirolisirako tratamendu planta bat eraiki nahi duela eta beharrezkoa badu Tapia Legea erabiliko duela horretarako. Azkar erantzun zuen Eusko Jaurlaritzak esanez proiektu horren atzean enpresa pribatu bat dagoela eta ez dela bere eskumena. Ordurako Tapia Legearen bigarren zatia prest zuten, "interes orokorreko" proiektu publikoak ez ezik, enpresa pribatuek ere beraien proiektuak inposatu ahal izateko, baina Eusko Jaurlaritzari darion gardentasun ezarekin jarraituz, nahiago izan zuen ELAri gezurretan aritzea leporatu (jakinik arrazoia genuela) bere gezurrak azaleratzea baino.

Arrazoi guzti ahulengatik, ELAk berriro dio, Tapia Legea herritarren kontrako iritzia duten, ingurumenarentzat kaltegarriak diren eta interes pribatuen interesak defendatzen dituzten azpiegiturak inposatzeko tresna dela. Izan proiektu publiko edo pribatu, noiz utzi dio bada Eusko Jaurlaritzak enpresen interes pribatuak herritarron interesen gainetik jartzeari? ■

Movilizaciones de las trabajadoras del comercio textil, general y piel y calzado de Bizkaia

Las trabajadoras del Comercio textil, general y piel y calzado han comenzado una serie de movilizaciones para reivindicar que sus derechos no están de rebajas. Estas trabajadoras llevan años sin que su salario se actualice y sin mejoras en las condiciones laborales.

La patronal CECOBI alega que, como consecuencia de la Covid, se han reducido las ventas en las tiendas, por lo que no pueden asumir subidas salarias. Pero esto es una mera excusa. La facturación por la venta online se ha disparado y las ganancias son millonarias. Unas ganancias de las que solo se benefician los empresarios.

ELA denuncia que, además, la patronal plantea elementos regresivos en las condiciones laborales: trabajar los sábados de verano por la tarde, desaparición de la antigüedad, apertura del comercio en domingos y festivos...

Las trabajadoras destacan que no están dispuestas a perder los derechos obtenidos durante años de lucha. Por ello, consideran imprescindible que se las vea en la calle luchado por sus derechos. Si no hay movimientos en las correspondientes mesas negociadoras las movilizaciones irán en aumento.

Babesa Tubacexen, PCBn, Bizkaiko Metalean eta Petronorren lan-gatazketako inputatuei

ELAk bere babesa adierazi die, besteak beste, Tubacex, Petronor, PCB eta Bizkaiko Metaleko lan-gatazketan parte hartzeagatik inputatutako langileei. Laster epaitegietara iritsiko dira hainbat langileren aurka irekitako prozedura penal eta administratiboak, besteak beste, ELAn afiliatuta daudenen aurka, 2019 eta 2021 artean Tubacex, PCB, Bizkaiko metala eta Petronorreko lan-gatazketan egindako mobilizazioetan parte hartzeagatik. ELAk uste du greba egitea edo manifestazio batean parte hartzea ezin dela delitu izan, eta inputazio horien aurka protesta egingo du.

Kasu gehienetan lan gatazka arruntei ordena publikoaren kontrako ekintzen trataera eman zaie. Eusko Jaurlaritzako agintari politikoek lan gatazken kriminalizazioa bultzatu dute horrela, lan gatazka arrunt bateko egoerak zuzenbide penaleko egitate bilakatu baitira. Kasu batzuetan proportziorik gabeko polizia jarduerak izan ziren Jaurlaritzaren aginduz, eta ondorioak langileek jasango dituzte.

Greba deialdi berria eta mobilizazioak Bizkaiko Erresidentzietan

Otsailaren 8a greba eguna izango da Bizkaiko Erresidentzietan. Deialdi berri honetan, ELAk berriro aldarrikatuko du lan hitzarmena berritu beharra dagoela, zaintza eredua aldatuko bada. 2021eko abenduaren 14a ere greba eguna izan zen Bizkaiko Erresidentzietan. ELAk zaintzaren inguruko funtsezko puntuak negoziatu eta adostea exijitzen du: profesionalak lehen egunetik ordezkatzea, lanaldi osoko kontratazioa, soldata eta lan baldintzak GUFErekin parekatzea, lanaldi partzialeko kontraturik ez egitea... Zoritxarrez, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta sektoreko patronalek entzungor egin diete orain arte langileen eskaerei.

Gaur arte sektoreko patronalei (GESCA, LARES eta ELBE) eman zaizkien 255 milioi euroetatik (diru publikoa) bat bera ere ez da baliatu zaintza hobetzeko, lantaldeak handitzeko edota lan baldintzak egokitzeko. Aldundiaren oniritziarekin, zaintzan inbertitu ordez langileen esplotazioa larriagotzen ari dira, lan karga handiagoak ezarriz; beharginak behartzen dituzte egun libreetan, jaiegunetan edo oporraldian lan egitera, lantokietako egoeragatik baja hartu behar izan duten langileen ordezkapenak egiteko modurik ez dagoela eta.

En el 33% de las plazas de la OPE de la Ertzaintza no se pide perfil de euskera

El 14 de enero se publicó la convocatoria de la OPE para la Ertzaintza. ELA denuncia que de las 424 plazas aprobadas 145 son sin perfil de euskera, es decir, más de un tercio de las plazas. Una decisión que para ELA es incomprensible, ya que además de no garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía va en contra del propio plan de normalización del euskera que se marca como objetivo la garantía de dichos derechos así como el poder trabajar en euskera. ELA ha pedido en reiteradas ocasiones a la Academia de Policía Vasca y Emergencias que todas las plazas ofertadas tengan establecido el perfil lingüístico; petición que una y otra vez ha sido rechazada.

ELAk bat egin du #Right2Cure-rekin patenteak kentzeko eta txertoak eskuratzeko berdintasuna lortzeko ekimena

ELAk bat egin du *Right2Cure* Europako Herritarren Ekimenarekin. Honen bidez, Europako Batzordeari eskatzen zaio neurriak har ditzala pandemien aurkako txertoak eta tratamenduak mundu mailako ondasun publikoak izan daitezen, eta guztiontzat eskuragarri egon daitezen. Milioi bat sinadura behar dira. Herrialde batzuetan COVID-19arentzako txertaketa-maila erritmo azkarrean handitzen den bitartean, beste herrialde askotan txertoen banaketa modu erabat bidegabean egiten da, baita osasun-egoera kritikoa denean ere. Txertoak eskuratzeari dagokionez, munduan dagoen desberdintasuna da pandemia honen amaierarako oztopo handienetako bat.

La plantilla de Altan Bernedo (Araba) en huelga desde el 29 de noviembre

La inmensa totalidad de la plantilla de Altan Bernedo –el 100% del personal fijo de producción, la I+D, el mantenimiento, el almacén y el control de calidad– está secundando la huelga indefinida convocada en defensa de un convenio propio. Altan Bernedo (antigua Biomendi) es una empresa farmacéutica situada en Mendialdea, la montaña alavesa, donde trabajan 150 personas, la mayoría mujeres. En 2019 terminó el último pacto de empresa de Biomendi (ahora Altan Bernedo). Desde entonces, el Comité de Empresa, –ELA cuenta con 6 de los 9 delegados y delegadas–, ha intentado mantener diversas reuniones para negociar un convenio de empresa. Sin embargo, la dirección ha mostrado siempre una actitud inflexible y pretende rebajar las ya precarias condiciones de trabajo actuales.

Huelga y movilizaciones por un convenio de residencias de Navarra que mejore las condiciones de trabajo y la calidad del servicio

Las trabajadoras de las residencias de Navarra secundaron masivamente la huelga convocada el 13 de enero por ELA, UGT, CCOO y LAB para exigir un convenio que mejore las condiciones de trabajo y la calidad del servicio. La patronal tiene bloqueada la negociación del convenio sectorial. Los sindicatos con representación en el sector trasladaron a las patronales y Gobierno de Navarra una propuesta conjunta para mejorar las condiciones laborales, pero a día de hoy ha sido imposible avanzar. Se mantiene la actitud de boicot de las patronales en la negociación, y su negativa a mejorar las condiciones de trabajo de las personas que trabajan en este ámbito.

El objetivo de las trabajadoras es mejorar y dignificar nuestras condiciones laborales: salarios dignos, jornadas laborales razonables, ratios adecuados, limitar la participación de fondos buitre, acabar con la temporalidad y los contratos parciales, estabilidad y garantías de futuro...

NOVALTIA, EUROPAKO GREBARIK LUZEENA

913 greba egun. Bi urte eta erdi pasa. Aldizkari hau inprentrara bidali zen egunean 913. greba eguna zuten Novaltiako langileek. Europako grebarik luzeena, duela hiru urte hasitako gatazka. 2019an Novaltiak enpresa-hitzarmen propioa kendu zuen, eta langileei 950 euro inguruko soldatak ezarri zien. Langileak antolatzen hasi eta greba deitu zuten 2019ko uztailaren 19an.

Enpresak negoziatzeari uko egiten jarraitzen du, eta lehen egunean bezala bere esku dagoen guztia egiten du greban dauden langile hauek ordezkatzeko. Helburu horretan Novaltia ez dago bakarrik, Lan Ikuskaritzaren ezinbesteko laguntza du.

Makina bat salaketa jarri ostean, azken hilabeteetan epaitegi ezberdinek Novaltia zigortu dute. 2021ko urrian Bilboko Lan Arloko 7. zenbakiko Epaitegiak arrazoia eman zion ELAri; epaileak ondorioztatu zuen Novaltiak langileen grebarako eskubidea urratzen zuela, langileen ordutegiak aldatzeagatik. Azaroaren 23an, berriz, EAEko Auzitegi Gorenak Novaltia zigortu zuen langileak legez kanpo ordezkatzeagatik. Hala ere, ez dirudi zigor hauek Novaltiaren zuzendaritzaren jarrera aldaketa suposatuko duenik. Otsailean epaiketa gehiago egongo dira.

Novaltia kooperatiba-sozietatea da, eta Bizkaiko 200 farmazia inguru dira sozietate horretako bazkideak. Azken hiru urteetan, hau da, lan gatazka hasi zenetik, 3,2 milioi eurotako irabaziak izan ditu. Aurretik ere dirutza irabazi du farmazeutika honek.

Bitartean, oztopoak oztopo, langileek mobilizatzen jarraitzen dute. Egunero daude kalean, Novaltiako kide diren farmazien aurrean euren egoera salatzen. Eta horretan jarraituko dute euren lan eta bizi baldintzak duinduko dituen hitzarmen propio bat lortu arte.

FSC PEFC Esta revista se elabora con papel y procedimientos sostenibles

Franqueo concertado

NO 08/129